



# Itzulpena, urrunekoaren ostatu

Itzulpena urrunekoaren aterpe edo ostatu bezala ikustera gonbidatu gintuen Antoine Berman traduktologo frantsesak<sup>1</sup>, Erdi Aroko Jaufre Rudel trobadorearen hitzak (*l'ostal de lonh*) gogora ekariz. Itzulpenaz eman diren ehunka definizioen artean ez da joko gutxien eskaintzen diguna, izan ere itzultzaileak zein interpreteak urruntasunak ezartzen duen hesia gainditzen lagundu izan dute gizadiaren egunsenti ilunetik hasita.

Santiago Kovadloffren hitzetan, itzultzeko gaitasuna «hurbiltasuna ahalbidetzen duen dohaia» da (*don facultador de cercanía*)<sup>2</sup>, bestea hurko bihurtzen duena, eta itzultzea auzo horren berezitasun miresgarria besteei eskaintzea dela, bestela ez bailukete hartaz gozaterik izango. Beraz, bizikidetzat bultzatzen duen zerbitzu gisa aurkezten du itzulpengintza, izan ere dakarren berri ona hauxe baita: bestearen mundua barrenezina ez dela aitortzeaz gainera guri ere badagokigun zerbait dela esaten baitu, gu zer garen agerian jartzen duenez gero.

Urruntasuna aipatzen hasita, badira bi gai azken urteotan itzulpen-azterketen alorrean gero eta arreta gehiago erakarri dutenak: itzulpengintza eta generoa, itzulpengintza eta kolonialismoa. Biek behar izan dute denbora luze samarra ikertzaileen eta teorialarien arreta erakartzeko eta bi sailetan gertatzen ziren hutsuneak eta asimetriak astintzen hasteko.

Generoan eta kolonialismoan nabari diren urruntasunak aipatu ditudalarik, Dora Sales Salvadorek *Quaderns* aldizkarian<sup>3</sup> urratu duen

ildotik, bi errealitate horiek lotzen eta kritikoki aztertzen saiatu den Gayatri Chakravorty Spivak (1988), Chandra Mohanty (1988), Vrinda Nabar (1995) indiarrek edo bell hooks (1981) afroamerikarra gutxienez izendatzea bidezkoa litzateke. Lehenak Mahasweta Devi idazle emakume herrikidea Mendebalean ezagutarazteko izandako jokabidea paradigmatico bihurtu da, Lia Cingarini (1995; 200) abokatu italiarraren *affidamento* kontzeptuaren ildotik.

Horiek guztiek alde edo moldez egin duten kritika izan da Mendebaleko feminismoak bere oinarrietako batzuk ezartzean ez dituela kontuan hartu beste arraza eta kulturetako emakumeen esperientzia diferentzialak, eredu eurozentrikotik haratago. Horregatik gogorarazi digu Chris Weedonek (1999) «nork nori buruz hitz egiten duen» dela gakoa, eta ildo beretik Spivak bengaliarrak pentsamendu feministaren argudiaketa unibertsalistak kritikatu egiten ditu emakume guztien izenean mintzo delako, baina baita Hirugarren Mundutik iristen diren diskurtsoekiko jarrera onberak dituztenak ere. Spivakek artikulu sonatua idatzi zuen *Can the Subaltern Speak?*<sup>4</sup> subjektu subalterno femeninoari ez zaiola bere kabuz hitz egiten uzten, baina gerora nabardura batzuk egin zizkion ideia horri esanez egiazki *politikoki hitz egiteko* ez daukala gaitasunik subalternoak, eta garrantzia duena zera dela, posizio laboratueta daudenez zer neurritaraino diren siltzearen konplize. Ildo horretatik dio, «talde subalternoetako kide baten eta hiritargoaren eta instituzionalitatearen artean komunikazio-lineak ezarri direnean, subalternoa

hegemoniarako bide luzean txertaturik dago». Horrela bada, aitortzen du garrantzizkoa dela hegemoniak isilduriko ahots horrek entzuna izateko bide bat aurkitzea, eta horretarako itzulpena aukera bikaina da.

Beraz, ez da harritzekoa **Tejaswini Narajanak** (2002) oso kontuan hartzea itzulpena bere herrikide indiarren artean feminismoari buruzko estrategia politikoak lantzen dituen heinean, eta horregatik proposatzen du subjektu politiko poskoloniala, feminista barne, atergabeko itzulpengintza dagoen subjektu gisa.

Gurera etorritz, gai hauek ez dute behar adinako oihartzunik izan orain arte, baina **Bakartxo Arrizabalagak** idatzi duena irakurrita<sup>5</sup>, litekeena da nola generoaren hala kolonialismoaren, eta itzulpen-ikerketaren inguruko interesa areagotzea, datozen urteotan, beste herrialde batzuetan 90. urteetan hasi eta oraindik nabarmen hedatuz eta sakonduz doan hori.

Bitartean, eta emakumeak gizartearen erdia baino gehiago diren Euskal Herri honetan aipaturiko artikuluko datu batzuek zer-pentsatua ematen dute eta zer presentzia du emakumeak gure itzulpengintzan? Galderari erantzunez, aipaturiko artikulugileak aurkitu du, 1997tik 2006 bitarteko Euskadi saridunen artean hamarretik bi bakarrik direla emakumeak. Baina horrek ez du esan nahi, **Michaela Wolfek**, Grazeko Unibertsitatean egindako ikerketa batean<sup>6</sup> hizkuntza alemanari dagokionez aurkitu duen bezala, gure artean ere emakumezko itzultzaileak gizonezkoak adina edo gehiago ez direnik, nahiz eta Austrian bezala datu ofizialak eskuratzea zaila izan, horietako askok etxean lan egiten baitute.

Komunikabideetan agerturiko itzulpen-kritikari bagagozkio ere, gizonezko itzultzaileen protagonismoa nabarmenagoa da emakumezkoena baino. Hala ere, eta ingurukoekin alderatuta, badirudi EIZIE elkartearen parekatuagoa dagoela gizonezkoen eta emakumezkoen partaidetza, aginte-organoetan batik bat.

Metropoliaren eta herri kolonizatuen arteko hizkuntza –kultura eta itzulpengintza– harremani dagokienez, nik dakidala, gaiak ez du ageriko interesik sortu gurean, beste herrialde batzuetan bezala, baina horretan ere interesgarria litzaiguke euskarazko sorkuntzaren harrera inguruko hizkuntza nagusietan nolakoa den aztertzea, baita horretarako aktibatzen diren mekanismoak arakatzea, Spivaken *Can the Subaltern Speak?* artikulua erreferentzia ildotik.

Azkenik baina ez atzenik, ehunetik gora hizkuntza dagoeneko egunero kaleetan entzuten dituen eta etorkinak ugariagotzen ari zaizkion gure Euskal Herri honetan nola daude hizkuntza horiekiko kultura –eta itzulpen– harremanak? Zer egin dute erakunde sanitario, judizial eta harrerazkoek gure arteko aniztasun honetan hizkuntza–harremanak bideratzeko? Honetan ere, beste gai askotan bezala, seguru asko gizarteak sortuko ditu lehen ekimenak aurrekontu murriztuz eta ahalegin handiekin gerora instituzioek beren gerizapean hartzea ezinbestekoa izango bada ere.

Rudel eta Kovadloff aipatuz hasi ditudan lerro hauek amaitu baino lehen, zilegi bekit esatea, generoen eta hedadura handiko eta txikiko kulturen arteko oreka etiko bat bilatzea, itzulpengintzan eta itzulpengintzaren bitartez, helburu desiragarria ez ezik dagoeneko abian jartzea komeni zaigun zeregina dela, egunen batean Baionatik Bilboalderaino hedatuko den megapoli nabar horretan biziko garen guztiok ostatu abegikorra izan dezagun, nork bereari uko egin beharrik gabe.

- 1 **Berman, Antoine**, «La traduction et la lettre ou l'auberge du lointain», *Les tours de Babel, essais sur la traduction*. Mauvezin: Trans-Europ-Repress, 1985, 31-150.
- 2 **Kovadloff, Santiago**, «La emoción de traducir», Ceremonia de entrega de la segunda edición del Premio Panhispánico de Traducción Especializada. Buenos Aires, 2006. → [http://dtil.unilat.org/panhispanico/edicion2/santiago\\_kovadloff.htm](http://dtil.unilat.org/panhispanico/edicion2/santiago_kovadloff.htm)
- 3 **Salvador, Dora**, «Traducción, género y poscolonialismo. Compromiso traductológico como mediación y affidamento femenino», *Quaderns, Revista de traducció*, 13, 2006, 21-30.
- 4 **Spivak, Gayatri Chakravorty**, «Can the Subaltern Speak?», Cary, Nelson/Larry, Grossberg (eds.) *Marxism and the Interpretation of Culture*. Chicago: University of Illinois Press, 1988, 271-313.
- 5 **Arrizabalaga, Bakartxo**, «Itzulpena eta feminismoa», *Senez*, 32 zk., 2007, 81-95.
- 6 **Messner, Sabine/Michaela Wolf** (Hg.), *Übersetzen aus aller Frauen Länder*. Graz: Styria, 143-151, 2001. «The female state of the art», Anthony Pym, Miriam Shlesinger & Zuzana Jettmarová (eds.) *Sociocultural Aspects of Translating and Interpreting*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 2006, 129-141.